



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUNAREN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN
ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2024ko uztailaren 25ekoa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Vitoria-Gasteizko Tranbiaren (Araba) Zabalgararako Luzapenaren –Erdialdearekiko Lotura Tarte– Eguneratzeari buruzko Informazio Azterlanaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua. Proiektuaren sustatzailea Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea da.

AURREKARIAK

2024ko apirilaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ingurumen-organoari eskatu zion Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak sustatzen duen Vitoria-Gasteizko Tranbiaren Zabalgararako Luzapenaren –Erdialdearekiko Lotura Tarte– Eguneratzeari buruzko Informazio Azterlanaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Ingurumen-organoak abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68.1 artikuluan aipatzen den kontsulta-izapidea egin zuen, eta horren emaitza espedientean dago jasota. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari izapide-prozesua hasi zela jakinarazi zitzaion.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, haren gainean interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 34.5 artikuluan dionaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen proiektuen ingurumen-ebaluazioaren oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatu eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie II.D eranskinean zerrendatutako proiektu publikoei edo pribatuei. Ebazpen honetan aztertzen den proiektua abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eranskinaren 4. puntuan jasota dago («II.E eranskinean jasotako beste programa batzuek, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuko prozedura gauzatu ondoren ingurumen-organoak hala erabakitzen badu edo sustatzaileak hala eskatzen badu»). Egiazki, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren aplikazio-eremuaren barruan dago proiektua; izan ere, batetik, II.E eranskineko E7 taldeko (Azpiegitura-proiektuak) 7.f. puntuan dago jasota («Tranbiak, zutabe gaineko eta lurpeko metroak, linea esekiak edo antzekoak, soil-soilik edo, batez ere, bidaiariak garraiatzeko baldin badira»), eta, bestetik, II.E eranskineko 3. kasuan («Beste proiektu batzuk, II.D eranskinekoak ez direnak, zuzenean edo zeharka, bakarrik edo beste plan, programa edo proiektu batzuekin batera, eragin nabarmena izan badezakete naturagune babestuetako batean

edo natura-ondarea kontserbatzeko araudiaren arabera babes-araubidea duten naturaguneetan»).

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasi aurretik, proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organismoari eskatu ahal izango dio, organo substantiboaren bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko. Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioa nahikoa dela formalki egiaztatu ondoren, ingurumen-organismoari igorriko dio, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egin dezan, interesdunei eta eragiten dien administrazio publikoei kontsulta egin ondoren.

Azkenik, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean zehaztutako eskakizunak hartu dira kontuan.

Orain arte azaldutako guztiari jarraituz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak kontuan hartu dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Vitoria-Gasteizko Tranbiaren Zabalgararako Luzapenaren –Erdialdearekiko Lotura Tarte– Eguneratzeari (aurrerantzean, proiektua) buruzko Informazio Azterlanaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik, honako baldintza hauetan:

1. Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren alderdi garrantzitsuak:

Proiektuaren xedea honako hau da: handitzen ari den Gasteizko Zabalgana auzoa –hiriaren hego-mendebaldean dago– erdialdearekin lotzea, Vitoria-Gasteizko tranbia luzatuz –hiriko gaur egungo lur gaineko hiri-garraio sistema jasangarriena da–. Horretarako, trazadura berria definitzeaz gain, kotxetegi berria eraiki behar da; izan ere, tranbia-zerbitzua handitzeko behar den ibilgailu-flotak lehendik dagoen kotxetegiaren edukiera gainditzen du.

Trazadura berriak hiriaren mendebaldeko Zabalgana auzoa erdialdean dagoen Lovainako geralekuarekin lotzen du. Hala, Zabalgana, Ariznabarra, San Martin eta Lovaina auzoei emango die zerbitzua. Trazaduran kale hauek sartzen dira: Lovaina plaza, Adriano VI.aren kalea, Buztinzuri kalea, Teodoro Dublang Margolariaren kalea, Balentin Berriotxoa kalea, Zabalgana hiribidea, Giza Eskubideen hiribidea, Iruña-Veleia hiribidea eta Sofia Erreginaren hiribidea. Gainera, bi azpiestazio egongo dira: bata, Serafin Ajuria kalearen eta Adriano VI.aren kalearen arteko bidegurutzeko lorategi-gunean; bestea, berriz, Giza Eskubideen hiribidean.

Proiektuak 2,3 kilometroko tarte komun bat eta honako adar hauek biltzen ditu: 2,2 kilometroko bat Mariturrira eta 1,1 kilometroko beste bat Aldaiara, gutxi gorabehera. Hala, tranbia-

azpiegitura berriak guztira 5,6 kilometro inguru izango ditu. Tranbiak hiriaren ekialde-mendebalde ardatza egituratuko du, Lovainako geralekuan gainerako lineekin lotzeko puntu bat izanda. Ustiapenak bi linea izango ditu, Mariturri-Lovaina eta Aldaia-Lovaina, eta Vitoria-Gasteizko gainerako tranbia-lineekiko independentea izango da. Horrela, linea batean gorabehera bat gertatuz gero gainerako lineei eragiteko arriskua murriztuko da.

11 geraleku izatea eta geralekuen artean batez beste 560 metro inguruko distantzia egotea aurreikusten da. Alboko nasek 3,5 metroko zabalera izango dute; erdiko nasek, berriz, 5 metroko zabalera. Nasen luzera 42 metrokoa izango da. Horiei bi muturretan egongo diren 5 metroko arrapalak gehitu behar zaizkie.

Lehendik dagoen tranbia-sarearekin lotzeko adarraren plataformarako bi drainatze-sistema proiektatu dira, horren tipologiaren arabera; hau da, bata, belardi-plataformarako, eta, bestea, asfaltozko akabera duen plataformarako. Kasu guztietarako irizpide orokor gisa, gainazaleko elementuak lehenbailehen husteko ahalegina egingo da, 50 metrotik behin gutxi gorabehera, emarien kontzentrazioa ahalik eta gehien murrizteko. Halaber, galtzadak eta espaloiak drainatzeko, oro har, ertz-erretanak jarriko dira tranbia-plataformaren ondoan, eta dagozkien hustubideetan hustuko dira. Kutxatilik, era berean, hustubideko elementu lurperatuak ikuskatu eta kontserbatu ahal izatea bermatu beharko dute. Azkenik, kutxatilak kolektoreen eta hustubideen elkarguneetan eta hodien oinplanoko eta altxaerako norabide-aldaketetan kokatuko dira. Kolektorea lehendik dagoen euri-uren sarera hustuko da, 100 metroan behin gehienez ere.

Kotxetegi berria udalerrriaren ekialdean egongo da, Hezeguneen ibilbidearen, Elgoibar kalearen eta Betoñuko futbol-zelaiaren artean, 233 m x 97 m-ko hiri-lurzoruko lurzati batean. Gaur egun Salburuan dagoen geralekutik kotxetegira iristeko tranbia-tarte berri bat sortuko da, eta geraleku berri bat izango du (Deba Arroa), Deba Arroaren kalea Hezeguneen ibilbidearekin lotzen duen biribilgunetik hurbil.

Egindako kalkuluen arabera, tranbia-sarea osorik garatzeko 33 tranbia behar dira, beraz, kotxetegia gutxienez 45 metroko luzerako 23 tranbia hartzeko diseinatu da.

Kotxetegiaren pabiloian (105 m x 63 m) aparkatzeko bideak jarriko dira. Instalazioetan tranbia-unitateen barrualdea garbituko da, eta premiazko konponketa-lan txikiak egingo dira. Kotxetegiko bideez gain, bisita-bide hobidun bat egongo litzateke, baita alboko pasabide batzuk ere, estalkira iritsi ahal izateko. Bide guztiek katenaria izango dute, beren kabuz bertara sartu eta irtetea ahalbidetzeko. Bideetan, 25 metrotik behin gutxi gorabehera, hargune elektrikoak (monofasikoak eta trifasikoak), edateko ura eta hargune pneumatikoak jarriko dira, premiazko konponketa-lan txikiak egin ahal izateko.

Sarbideetako batean, hondarra kargatzeko sistema eta unitateen kanpoaldea garbitzeko makina barne hartuko dituen eraikina jarriko da. Hondar-banagailuaren eginkizuna tranbiek dituzten hondarreztagailuak betetzea da. Hondar-puntu bakoitzak 90 litroko edukiera izango du; gutxi gorabehera bi hondarreztagailu betetzeko erabiltzen den bolumena, alegia. Hondar-puntuek beso orientagarriak edukiko dituzte, puntu bakoitzak material ibiltariko bi hondarreztagailuri heldu ahal izateko. Hondar-banagailuaren osagaiak hauek izango dira: 1 hondar-silo, 1 zerbitzatze-tanga, banaketa-hodiak, 4 hondar-puntu eta 1 aire konprimatuko kanalizazio eraikineko aire konprimatuko zentraletik.

Tranbiaren hondar-tangak bete ondoren, unitateak kanpotik garbituko dira. Garbiketa-ekipoa altzairu herdoilgaitzezko garbiketa-dorre finkoz osatuko da, eta tranbiak modu automatizatuan garbitzeko eginkizuna izango du. Garbiketako ura kutxatila batean jasoko da, eta kutxatila hori

lohiak eta koipeak bereizteko sistema batez hornitutako ura biltzeko putzu batera konektatuta egongo da. Instalazioak ura birziklatzeko sistema bat izango du, hurrengo garbiketetan ura berrerabili ahal izateko. Babes-pantaila sistema bati esker, makinak egiten duen zarata murriztu eta ur-zipritinak eragotziko dira.

Era berean, garbiketa-makinaren atzean tranbiak aldi baterako aparkatzeko gune bat jarriko da, unitateak irteteko edo kotxetegira eramateko mugimenduak oztopatu edo blokeatu ez ditzaten. Eraikin hori zerbitzua amaitzean erabat itxita egongo da eta gauean aparkalekua ere izango da, kotxetegiari lotutako 23 tranbien eskaria osatzeko.

Kotxetegiaren pabiloiaren ondoan, tranbia-gidarietarako aldagelak eta komunak, atsedena-gela eta fitxatzeko zein zereginak erregistratzeko langela jarriko dira. Gainera, unitateetako garbiketa-langileentzako aldagela eta geletarako espazio bat jartzea aurreikusten da.

Bestalde, hondakinak biltzeko gela bat egongo da; bertan, hondakinak bereizi eta metatu ahal izango dira. Gela horren edukia honako hau izan daiteke: metalezko ontzietarako edukiontzia, gai inpregnatuetarako edukiontzia, plastikozko ontzietarako edukiontzia, paper-kartoirako edukiontzia, errefuserako edukiontzia, aerosolak eta material elektroniko zein elektrikoak gaika biltzeko zaborrontziak, eta pilak, fluoreszenteak eta bonbilla halogenoak gaika biltzeko zaborrontziak.

Eraikineko instalazioetarako ekipamendua gela teknikoetan kokatuko da, eta honako hauek barne hartuko ditu: trakzio-azpiestazioa (beharrezkoa bada), behe-tentsioko azpiestazioa, klimatizazio-, aireztapen- eta berokuntza-instalazioak, edateko uraren hornidura, suteen aurkako babesa, segurtasun- eta bideozaintza-instalazioak eta langileentzako bulegoak.

Proiektuak honako instalazio hauek barne hartzen ditu: hornidura-instalazioak (edateko ura eta UBS-ur bero sanitarioa), saneamendu-instalazioak (euri-urak eta ur beltzak), behe-tentsioko instalazioak (elektrizitatea eta argiztapena, tximistorratzak eta lur-sarea), klimatizazio-instalazioak (HVAC), suteen aurka babesteko instalazioak (detekzioa eta itzalketa), komunikazio-sarea (Ethernet) eta segurtasun-instalazioak.

Lurzatirako proiektatutako drainatze-sistema ertz-erretan gisako areka perimetral bat da, zolatatik hustu beharreko ura biltzeko.

Kotxetegia bi fasetan eraikitzea aurreikusten da. 1. faserako honako instalazioak proposatzen dira: 7 aparkaleku-bide, 13 tranbia-unitaterako; aparkatzeko posizio bat, zeinak bi aldeetan behetik eta goitik irispidea izango baitu, premiazko konponketak egiteko; garbiketak egiteko eta hondarra kargatzeko sistemarako bide bat; biltegi bat, ordezkoko piezen % 5-10erako, eta operazioetako eta garbiketako langileentzako behar diren guneak, hala nola bulegoak, aldagelak, gela teknikoak, etab.

Aukeren azterketa

Aurkeztutako dokumentazioan, 0 aukera edo «esku ez hartzea», 9 trazadura-aukera (A-I), ondoren beste 4 gehituta, eta kotxetegi berria kokatzeko 6 aukera (A-F) jorratzen dira.

Proiektuaren hasierako dokumentuan adierazten denez, 0 aukerarekin obren fasean aurreikus daitezkeen eragozpenak eta bestelako afekzioak saihestuko lirateke, baina ez litzateke hobetuko

garraio publikoko sistema horren zerbitzua. Proiektuan proposatzen den tranbia-aukerari dagokionez, argudiatzen denez, beste garraio-sistema kutsakorrago batzuen ordeztan tranbia erabiltzea bultzatzen da, baita ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea ere.

Trazadura-aukeren ingurumenaren arloko konparazioak egiteko erreferentziak honako hauek izan dira: berdeguneen okupazioa, tranbia ezartzeak zenbat zuzentzen diren (mozketak) eta aukera bakoitzak gehiegizko zaratak sortzeko duen potentziala.

Hasierako 9 trazadura-aukerak 13ra zabaldu dira bigarren fase batean, Gasteizko Udalak «Tranbiaren Zabalgararako Luzapenari -Erdialdearekiko Lotura Tarteak- buruzko Informazio Azterlana» dokumentuari egindako alegazioaren ondorioz; horien artean, «K proposamena» izeneko aukeratu da, Adriano VI.a-Buztinzi-Teodoro Doublang Margolaria-Balentin Berriotxoatik igaroko dena, zeren eta hori baita hiri-integrazioaren eta hiri-ereduaren irizpideei hobekien egokitzen zaiena. Hala ere, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, aurreko trazadura-aukerak berriz aztertzen ari dira eta, horiekin batera, beste berri batzuk, zeinak tranbiaren Zabalgararako luzapenaren eguneratzeari buruzko Informazio Azterlana idazterakoan egindako analisietatik sortzen ari baitira.

Kotxetegiak kokatzeko 6 aukera aztertu dira, 2022ko Aukeren Azterketan dagoeneko aztertutak. Honako hauek dira: A aukera: Mercedesen hegoaldeko lurzatiak. B aukera: Mariturririko lurzatiak. C aukera: URSSaren lurzatiak eta ingurukoak. D aukera: URSSatik hegoaldera dagoen lurzatiak. E aukera: Aretxabaletako lurzatiak, Barrundia kalearen hegoaldean. Eta F aukera: Betoñuko lurzatiak, Salburuaren mendebaldean.

Aurkeztutako dokumentazioan aukeren analisi konparatibo bat jasotzen da, ingurumen-baldintzatzaile hauen gaineko eraginean oinarrituta: kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek, interes hidrogeologikoko eremua eta akuiferoen kalteberatasuna, uren kalitatea, uholde-arriskua, Batasunaren intereseko habitata, Kudeaketa Plan bat onartuta duen fauna mehatxatua (uhale-enara eta bisoi europarra), Natura 2000 Sarea, ekosistemen zerbitzua, paisaiaren kalitatea, ikusgaitasuna, ustezko zona arkeologikoak, nekazaritza-lurzorua, bizitegi-guneak (obren eta ustiapenen ondoriozko eragozpenak), lursailak lurzoru urbanizaezinean egotea, errepide-zati berriak egiteko obren premia, Ibaien LPSko hirigintza-osagaiko ertzak eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko balio estrategiko handiko lurzoruek.

Aukeren azterketan ondorioztatzen denez, A aukera ezetsi egin da, Mercedesen lantegiaren balizko handitzeak ez baldintzatzen; B aukera, ustezko zona arkeologiko batean eta lurzoru urbanizaezinetan dagoelako; eta C zein D aukerak, batetik, trazadura lotzeko adar luze bat egin behar delako eta hiriaren txertatzeko konplexua delako, eta, bestetik, lurzoruek kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan daudenez, izapidetze-epeak eta egikaritze-kostuak handitzea dakartelako. Beraz, E eta F aukerak geratzen dira. Horiek, bigarren analisi-fasean, hiru aukeratan banatu dira: 1. aukera: Aretxabaletako lurzatiak, Barrundia kalearen hegoaldean. 2. aukera: lurzati bera, ezarpen-orientazio desberdinarekin. 3. aukera: Betoñuko lurzatiak, Salburuaren mendebaldean. Dokumentazioan, 3 aukeren ingurumenaren arloko konparazio-taula bat dago, baina ez dago azken balorazio arrazoiurik, ingurumenaren ikuspegitik eragin txikiak zeinek duen justifikatzen duenik. F (edo 3) aukera Vitoria-Gasteizko Udalak «Vitoria-Gasteizko tranbiaren Zabalgararako luzapenari buruzko Informazio Azterlana. Erdialdearekiko Lotura Tarteak» alegazioan adierazitako interesetan oinarritzen da. Zehazki, hauetan: nekazaritza-lurzorua babestu eta hiriaren ertzetan nekazaritza-parke bat sustatzea, baita hiriko eguneroko joan-etorriak behar bezala kudeatzea eta Vitoria-Gasteizko hegoaldean horien dentsitatea ez handitzea ere.

Proiektuaren eraginpeko azalera Vitoria-Gasteizko hiri-lurzorua da. Alde batetik, tranbia-trazadura berriak 5,6 km inguru okupatuko ditu hiri-bideetan, eta horri Zabalgaran 11 geraleku

eta kotxetegi berriaren ondoan beste bat gehitu behar zaizkio. Bestetik, kotxetegi berria 233 m x 97 m-ko hiri-lurzati batean kokatuko da, Salburua KBE-HBBEaren (ES2110014) inguruko babes-gunean.

Proiektuaren eremua Zadorraren Unitate Hidrologikoan dago, Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren barruan. Trazadurak Ehari eta Perretxin errekekin bat egiten du; dagoeneko urbanizatuta dauden kaleetako zubien gainetik zeharkatuko ditu. Bestalde, kotxetegia Betoñuko urmaeletik eta hura zeharkatzen duen «12579 izenik gabekoa» errekatik 50 metro eskasera dago. Betoñuko urmaela Salburuko Hezegunearen barruan dago, zeina RAMSAR nazioarteko garrantziko hezegunea baita. Salburuko geralekuaren eta kotxetegiaren arteko tranbia-trazadurak bat egiten du Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko «nitratoek kutsatzeko arriskua duten eremuekin».

Lovainako eta Adriano VI.eko geralekuen, kotxetegirako lurzatiaren eta kotxetegia Salburuko geralekuarekin lotzeko tranbia-tartearen artean, tranbia-trazadurak «Gasteizko alubiala» lurpeko ur-masaren ekialdeko sektorearekin bat egiten du; Salburuko urmaela, kotxetegiaren lurzatiatik hurbil kokatua, Gasteizko akuifero kuaternarioari lotutako freatikoko azaleratzea da. Kotxetegiari lotutako jarduketek eta kotxetegia Salburuko egungo geralekuarekin lotzeko tranbia-trazadura berriak interes hidrogeologikoko eremu batekin bat egiten dute. Oro har, bai tranbia-trazadura berria, bai kotxetegia akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia duten lursailetan daude.

Proiektuan Lovaina plazatik Zabalgana auzoraino aurreikusten diren jarduketak nagusiki kareharri tupatsuak, tuparriak, kareharriak eta kalkarenitak txandakatzen dituen litologia baten gainean garatuko dira, zeinak pitzadura bidezko iragazkortasun txikia baitu. Salburua eremuko jarduketek, berriz, gainazaleko metakinekin (metakin alubialak eta alubio-kolubialak) bat egiten dute, zeinek porositate bidezko iragazkortasun ertaina baitute. Ukitutako lursailak lurzoru urbanizatua okupatzen dute, eta, aurretik antropizatuta daudenez, ez dute interesik nekazaritza-aprobetxamendurako; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak lurzoru horiek antolamendutik kanpo uzten ditu. Eremuan ez da interes geologikoko punturik edo gunerik hauteman, baina aipatzekoa da kotxetegirako lurzatia interes hidrogeologikoa duen Salburuko Hezegunea eta Kuaternarioa IGLaren (79. IGL) azaleratzetik hurbil dagoela.

Proiektuaren eremuan, Eusko Jaurlaritzaren landarediaren kartografiak, batetik, hiri-azalerak eta alfer-lurrak identifikatzen ditu eta horiek landaredi erruderal nitrofiloarekin lotzen ditu, eta, bestetik, Zabalgana auzoko zenbait tranbia-tartetan, zereal, patata eta erremolatxaren laborantza-azalerak. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, proposatutako trazadurak zeharkatzen dituen guneak landaredirik gabekoak dira, edo, bestela, formazio naturalak hiri-testuinguruan tartekatutako zati batzuk besterik ez dira. Beste alde batetik, ez da flora-espezie mehatxaturik identifikatu, ezta Batasunaren intereseko habitatik ere (2019).

Kotxetegi berria ezartzeko eremua Salburuko hezegunearen ondoan dago. Hezegune hori Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sarearen parte da, eta Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) ez ezik, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) ere bada, ekainaren 30eko 121/2015 Dekretuari jarraituz. Dekretu horren bidez, Salburua Hegaztientzako Kontserbazio Bereziko Eremu eta Babes Bereziko Eremu izendatzeaz gain, kontserbazio-neurriak ezarri ziren. Hain zuzen ere, eremua aipatutako «Salburua» ES2110014 KBEaren «Inguruko Babes Gunean» dago. Inguruko Babes Gunearen xedea da hezegunetik hurbilen dagoen ingurunetik datozen afekzio negatiboak eta baliabide hidrikoaren kantitate- eta kalitate-alterazioak prebenitzea, haren mende dauden habitaten, espezien eta prozesu ekologikoen kontserbazioa berma dadin. Gune horretan, Habitataria buruzko Zuzentarauaren 6.3 artikuluko prebentzio-araubidea eta eremuari dagozkion kudeaketa-dokumentuetako babes-arauek daude indarrean. KBE/HBBE eremu babestu horretarako arauak, helburuak, jarraibideak eta kontserbazio-neurriak martxoaren

17ko 35/2015 Dekretuaren bidez eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 13ko 583/2015 Erabakiaren bidez onartu dira¹.

Kotxetegia Salburuko hezegunearen ondoan kokatzea da proiektuaren baldintzatzaile esanguratsuenak. Salburuko hezeguneak faunarentzat –bereziki, abifaunarentzat– duen interesa nabarmentzen da. Hezegune horri lotutako abifauna urtarraren garrantziak² HBBEtzat har dadin ekarri du, bai eta nazioarteko garrantziko hezeguneen RAMSAR zerrendan sar dadin ere. Uribarri-Ganboako urtegiaren ondoren, Salburua KBEan dago Arabako hegazti urtarren bikote habiagile gehien; nabarmentzekoa da gunek horrek, iberiar penintsula mailan, ur-benarrizaren (*Acrocephalus paludicola*) udazkeneko migrazioan sedimentazio-leku gisa betetzen duen funtzioa. KBE/HBBEan, abifauna urtarra eta ur-benarriza (*Acrocephalus paludicola*) ez ezik, funtsezko elementu hauek kontserbatu behar dira: kiropteroen populazioa, espezie mehatxatu batzuk barne; bisoi europarra (*Mustela lutreola*), galzoriko espezie gisa katalogatua; uhalde-enara (*Riparia riparia*), kaltebera gisa katalogatua; apoarmatu korrontezalea (*Mauremys leprosa*), kaltebera gisa katalogatua; baso-igel jauzkaria (*Rana dalmantina*), kaltebera gisa katalogatua, eta kontserbazio-intereseko intsektu populazioak (koleopteroak, tartean *Rosalia alpina* eta *Lucanus cervus*; odonatuak, *Coenagrion mercuriale*, esaterako; eta lepidopteroak, *Euphydryas eurinia*, kasu). Habitatar buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan bildutako espezie mehatxatuak dira.

Bestalde, proiektuaren eremuak uhalde-enararen (*Riparia riparia*) interes bereziko eremuarekin bat egiten du, tranbia-trazadurak Ehari erreka gainetik zeharkatzen duen gunean, kotxetegia bisoi europarrarenaren (*Mustela lutreola*) ondoan dago, eta bi espezieek Kudeaketa Plan bana dute³. Gainera, bai kotxetegia ezartzeko gunek, bai kotxetegia Salburuko geltokiarekin eta Deba Arroko geralekuarekin lotzeko tranbia-trazadurak bat egiten dute Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindu bidez izendatutako abifaunarentzako babes-eremuarekin. Eremu horretan, Goi-tentsioko linea elektrikoetako hegaztien elektrokuzioaren eta talken ondoriozko heriotzak murrizteko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan ezarritako talkaren eta elektrokuzioaren aurkako neurriak aplikatu behar dira. Hain zuzen ere, Babes Eremuetako «Salburua Sektorea»rekin bat egiten du.

Kultura-ondareari dagokionez, Mariturririko azken tranbia-geralekuaren inguruan, Mendibiarte Herrigunea (6. zk.) eta Mariturririko Aztarnategia (31. zk.) ustezko zona arkeologikoak daude (UZA), Vitoria-Gasteizko (Araba) Balizko Arkeologia Guneen Izendapena egiten duen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez aitortuak (1997/07/08ko EHAA, 129. zk.). Era berean, Jundizko norabideko adarra ustezko zona arkeologiko izendatzeko proposatu den Arkanolanda errota (293. zk.) ingurunean sartzen da.

Paisaiaren ikuspegitik, proiektuaren eremua Vitoria-Gasteizko ikuseremuan dago, eta oso paisaia arruntekoa da. Eremuan paisaia-balio inbentariatu edo katalogaturik ez badago ere,

¹ 583/2015 Erabakia, urriaren 13koa, Diputatuen Kontseiluarena, Salburuko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) egoera onean kontserbatzeko eta eremu horietan habitatak narriatzea eta espezieak eraldatzea saihesteko «Kudeaketa Jarraibideak eta Neurriak» biltzen dituen dokumentua barne hartu, eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren 121/2015 Dekretuaren eranskin gisa argitaratu ematen duena.

² Nabarmentzekoa da KBEa dela *Himantopus himantopus*, *Anas querquedula*, *Nycticorax nycticorax* eta *Ixobrychus minutus* espezieen EAEko ugaltze-gune bakarra, baita beste espezie oso urri batzuen (*Aythya fuligula*, *Charadrius dubius*, *Anas clypeata* eta *Rallus aquaticus*, kasu) gertuko eremu geografikoko bakarra ere. Penintsulan arriskuan dauden beste espezie batzuen paseko edo negualdiko presentzia erregularra da, hala nola *Podiceps nigricollis*, *Ardeola ralloides*, *Ardea purpurea*, *Ciconia nigra*, *Ciconia ciconia*, *Platalea leucorodia*, *Circus aeruginosus*, *Porzana porzana*, *Porzana pusilla*, *Recurvirostra avosetta*, *Gallinago gallinago*, *Numenius arquata*, *Chlidonias hybridus*, *Chlidonias niger*, *Streptopelia turtur*, *Alcedo atthis*, *Riparia riparia* eta *Acrocephalus paludicola* espezieena, besteak beste.

³ 180/2003 Foru Agindua, apirilaren 1koa. Horren bidez, Arabako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* bisoi europarra (Linnaeus, 1761) Kudeatzeko Plana onesten da.

22/2000 Foru Dekretua, martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena, Uhalde Enara (*Riparia riparia*) hegaztia Kudeatzeko Plana onesten duena, espezie mehatxatua delako eta berariazko babes-neurriak behar dituelako.

kotxetegia Salburuko Hezegunearen ondoan kokatuko da, zeina paisaia bikain gisa jasota baitago Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan (2005).

Egoera akustikoari dagokionez, aurkeztutako dokumentazioan ez dago inpaktu akustikoaren azterketarik; adierazten denez, Zarataren eta Bibrazioen aurkako Udal Ordenantzan adierazitakoa hartuko da kontuan.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, proiektuaren eremuak akuiferoen kutsadurarekiko kalteberetasun handiko guñekin bat egiten du. Gainerakoan, eremuak ez du uholde-arriskurik, eta ez du bat egiten lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatiekin; halaber, ez da hauteman sismizitatearekin edo baso-suteekin lotutako higadura-arrisku nabarmenik. Eremua ez dago sartuta salgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arrisku handia duten bideei lotutako afektazio-bandetan, eta ez da arriskurik identifikatzen SEVESO enpresak hurbil egotearen ondorioz.

A priori, proiektua garatzearen ondorio nagusiak, beste batzuk baztertu gabe, obrak gauzatzeko fasean gertatuko dira. Eraginak, nagusiki, honako hauek sortuko dituzte: lur-mugimenduek; tranbiaren plataforma eta horri lotutako nasak zein azpiegitura eraikitzeak; trazadura berriaren inguruan urbanizazioa egokitzeak; kotxetegiko pabiloia eta horri lotutako instalazioak eraikitzeak; obretako gune osagarriak okupatzeak eta makinak mugitzeak. Horrek inpaktu potentzialak eragingo ditu egoera akustikoan, kalitate atmosferikoan (obretan hautsa eta beste kutsatzaile batzuk aineratzea) eta paisaian; eragin horiei baliabideen kontsumoa, hondakinen sorrera eta ustekabeko isurketek gainazaleko eta lurpeko uren kalitatean eragiteko arriskua erantsi behar zaizkie.

Kotxetegi berria eta lehendik dagoen Salburuko geralekutik kotxetegirainoko tranbia-trazadura berria Natura 2000 Sareko ES2110014 «Salburua» KBEaren Inguruko Babes Gunean egingo dira, beraz, zuzeneko edo zeharkako ondorioak izan ditzakete gune babestu horretan kontserbatu beharreko habitatetan edo espezieetan. Obran aurreikus daitezkeen afekzioez gain, instalazioak beren balio-bizitzan zehar erabiltzeak ere afekzioak izango ditu, bereziki, kotxetegiaren funtzionamenduari dagokionez (produktu kimikoekin garbitzea, bateriak gordetzea, etab.), zeinak akuiferoetan eragina izango baitu, eta, ondorioz, baita hezegunearekin lotutako fauna-komunitatean ere. Gainera, kontuan hartu behar dira eremuko jardueraren ondoriozko zaratak eta argiztapena; izan ere, horrek, era berean, hezegunean bizi den faunari eragozpenak sortzen dizkio, kutsadura akustikoarekiko eta argi-kutsadurarekiko sentikorra baita.

Proiektua gauzatzeak, gainera, Salburuko urmaelaren ondoan –Gasteizko akuifero kuaternarioari lotutako freatikoko azaleratzea da– lur-mugimenduak eragingo ditu, beraz, indusketek, batez ere kotxetegiari lotutakoek, lurpeko ur-fluxuarekin elkarrekin sortzeko arriskua dago. Era berean, lurren balantzerik ezean, indusketako soberakinen kudeaketak afekzioak sortuko dituela aurreikus daitezke; soberakin horiek proiektuaren eremutik kanpo kokatu beharko dira. Horrez gain, lurra iraultzeak landare-espezie inbaditzaileak sartzea erraztuko du, fase horretan; horrelako espezieak ugaritzeko arrisku-faktorea izango da, beraz.

Kultura-ondareari dagokionez, proposatutako trazadura ustezko zona arkeologiko (UZA) batzuetan sartzen da, baina erabat urbanizatutako ingurune batean planteatzen da (hiribideen erdibitzaileak, ibilgailuen zirkulaziorako galtzadak, bizikleta-erreiak...). Beraz, egingo diren lanek urbanizazio-jarduketak aurrez aldatu dituen eta urbanizazio-lanak direla-eta dagoeneko esku-hartze arkeologikoak egin diren lursailetan bakarrik izan beharko lukete eragina.

Perretxin eta Ehari errekek gurutzatzeari dagokionez, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, dagoeneko urbanizatuta dauden kaleetako zubien bidez egingo da, beraz, ez da espero ibai-

morfologiari eragingo zaionik; horrek, era berean, Ehari errekarerekin lotutako uhalde-enararen habitatean izan dezakeen eragina mugatuko luke.

Proiektuaren eragin akustikoari dagokionez, aurkeztutako dokumentazioan ez dago azterketa akustikorik; adierazten denez, Zarataren eta Bibrazioen aurkako Udal Ordenantzan adierazitakoa hartuko da kontuan.

2. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren zabalatasuna, xehetasuna eta zehaztasuna:

Ingurumen-inpaktuaren azterketak bete egin beharko ditu, gutxieneko edukiei eta egiturari dagokionez, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 35. artikuluan eta VI. eranskinean xedatzen dituenak.

Aurrekoari jarraituz, atalek eskema metodologiko honi jarraitu behar diote:

1. Proiektuaren deskribapen orokorra eta lurzorua eta beste natura-baliabide batzuek etorkizunean izango duten erabileraren aurreikuspena. Lur-mugimenduen, sortuko diren hondakin eta isuri moten eta kopuruen eta horien ondoriozko materia- edo energia-emisioen balioespena.
2. Aztertutako aukera nagusien azalpena, zero aukera barnean hartuta (proiekturik ez egitea, alegia), eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusien justifikazioa, proiektuaren ingurumen-efektuak kontuan hartuta.
3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko edo ingurumen-interakzio garrantzitsuenen deskribapena.
4. Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta neurketa: ebaluatuko da ea zer-nolako eragina izan dezakeen proiektuak, zuzenean nahiz zeharka, biztanlerian, giza osasunean, floran, faunan, biodibertsitatean, geodibertsitatean, lurzoruan, zorupean, airean, uretan, faktore klimatikoetan, klima-aldaketan, paisaian eta ondasun materialean (ondare historiko-artistikoa eta arkeologikoa barne), ingurumenaren gaineko ondorioak kontuan hartuta. Halaber, arreta jarriko zaio faktore guztien arteko interakzioari, proiektua egikaritu, ustiatu eta, hala badagokio, eraitsi edo bertan behera uzteko fase guztietan.

Proiektuak Natura 2000 Sareko espazioetan izango dituen ondorioak ebaluatzeko atal espezifiko bat gehituko da, leku bakoitzeko kontserbazio-helburuak kontuan hartuta, eta barne hartuko ditu aipatutako inpaktuak, Natura 2000 Sareko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta horien jarraipena.

Natura 2000 Sarearen osotasunari kalte egingo zaiola egiaztatzen bada, sustatzaileak agiri bidez justifikatu beharko du ez dagoela beste alternatibarik eta badaudela lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiak, Natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikuluan 5., 6. eta 7. apartatuetan aipatzen diren horietakoak, hain zuzen.

Proiektuak, epe luzera, azaleko ur-masa baten aldaketa hidromorfologikoa eragin badezake edo lurpeko ur-masa baten maila aldarazi, eta horrek ur-masa hori egoera onera edo potentzialera iristea eragotz badezake edota ur-masa horren egoera edo potentziala kaskartu badezake, berariazko atal bat erantsi beharko da, ukitutako ur-masen egoera edo potentziala definitzen duten kalitate-elementuen gaineko epe luzeko eraginak ebaluatzeko.

5. Proiektuaren kalteberatasuna. Istripu larri edo hondamendi handiren bat gertatzeko arriskuarekiko kaltebera izatearen ondorioz proiektuak ingurumenean sor ditzakeen

kalte nabarmenen deskribapena, aztergai dagoen proiektuari dagokiona.

6. Ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak.
7. Ingurumena zaintzeko programa.
8. Azterketaren laburpena eta ondorioak, erraz ulertzeko moduan. Azterketa egitean izandako zailtasun informatibo edo teknikoen txostena, zailtasunik izan bada.

Oro har, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean zehazten dira ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa egiteko baldintzak.

Proposatzen diren jarduketaren eta ziurrenik kalteak jasango dituen ingurunearen ezaugarriak direla eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen-inpaktuaren azterketak aipatutako atalak garatu beharko ditu, ondoren adierazitako zabaltasunarekin eta xehetasun-mailarekin.

2.1. Proiektuaren eta horrekin lotutako ekintzen deskribapena

Ingurumen-inpaktuaren azterketak proiektuaren eta etorkizunean lurzorua eta bestelako natura-baliabideen erabilerari dagokionez aurreikusten diren beharren deskribapena jaso behar du, behar bezain xehea. Halaber, jardueren ondorioz sortuko diren materia- edo energia-hondakin, isuri eta emisio motak eta kopuruak kalkulatu behar ditu, eta, zehazki, ingurumen-baldintzetan eragin garrantzitsuak izan ditzaketen ekintzak identifikatu behar ditu azterketa xehatu baten bitartez, bai exekuzio fasea bai funtzionamendu fasea aintzat hartuta.

Ingurumen-inpaktaren bat izan dezaketen proiektuko ekintza guztiak identifikatu behar dira, babes- eta zuzenketa-neurri egokienak hartzen direla bermatze aldera.

Saihestu eta zuzendu nahi diren kalteak, bai proiektuak proposatutako jarduketatik beretik bai berezkoak zaizkion jarduera osagarri guztietatik etor daitezke, bereziki, honako hauetatik: sarbideak egokitzetik, obrak egiteko eta materialak metatzeko gune osagarriak kokatu eta ezartzetik, erabiliko diren makinengatik, lurra atera eta metatzeagatik eta soberakinak kudeatzetik.

Jarduketa horiek guztiak xehetasun-maila nahikoarekin definitu beharko dira, proiektua gauzatzeak ingurumenean izan litzakeen ondorioak kalkulatzeko eta prebentzio- eta zuzenketa-neurri egokiak diseinatu ahal izateko, hartara hautemandako ingurumen-eraginak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatuta.

Aurrekoa kontuan hartuz, eta ebaluatzen ari den proiektuaren ezaugarriak ikusita, xehetasunez azaldu beharko dira alderdi hauek, besteak beste:

- Proiektuaren eraginpeko eremuaren kokalekua eta mugaketa.
- Egungo egoeraren deskribapena.
- Jarduketaren eta aurreikusitako obra guztien deskribapena. Proposatutako esku-hartze bakoitzaren eta horien eraginpeko azalaren deskribapen xehatua: trazadura (oinplanoa eta zeharkako eta luzetarako profilak), plataforma, aurreikusitako fabrika- eta egitura-obrak (sektio tipoak), hondeaketa-kotak, katenaria eta eusteko elementu motak, geralekuen eta haien sarbideen diseinua, baita ustiapen-fasean izango dituzten instalazio

atxiki edo osagarriena ere (hargune elektrikoak, azpiestazioak, kotxetegia, tranbia-zabaltzak, seinaleztapena, eta abar).

- Guztizko lurzoru-azalera premiak, bai obra-fasekoak (makineria-parkeak, aldi baterako sarbideak, instalazio osagarriak, lehengaien pilaketa) bai ustiapen-fasekoak (tranbia-bideak, geralekuak, kotxetegia, eta abar). Obrako instalazio osagarrien kokapena. Proiektuaren eraginpeko eremuan eta haren ingurune hurbilean dauden gune sentikorrenak (landaredia duten guneak, ibilguak eta haien ertzak, akuiferoak kutsatzeko arrisku handia duten guneak, naturagune babestuak, ustezko zona arkeologikoak) ez dira egokitzat joko aldi baterako instalazio horiek kokatzeko.
- Obretan okupatu beharreko guneen egokitzapenaren ezaugarriak.
- Lur-mugimenduak:
 - Kuantifikazioa eta balantzea. Sortutako hondeaketa-soberakinen kudeaketa eta helmuga. Mailegu-materialen premiak, hala badagokio, haien kuantifikazioa, ezaugarriak eta jatorria.
 - Kotxetegi berria egiteko gainazalen, koten, bolumenen eta hondeaketa-sakoneraren definizioa. Indusketak egiteko modua, material-erretiratzearen aurreikuspena eta bitarteko bilguneak. Obra-fasean akuiferoan eraginik ez izateko aurreikusitako eraikuntza-teknikak.
 - Soberakinak garraiatzeko aukeratu diren ibilbideak, lurak helmugara eramateak sorraraziko dituen ondorioak aztertuta.
- Trazadurako ibilgu-gurutzatzeak gauzatzeko beharrezkoak diren obren definizioa. Ibai-ibilguetan eta Betoñuko urmaeleen eraginik ez izateko aurreikusitako eraikuntza-teknikak.
- Betoñuko urmaelaren ondoan egingo den kotxetegi berriari lotutako eraikuntzaren definizioa, aurreikusitako zimenduen xehetasuna barne, planoetan kotatuta (oinplanoa eta profila).
- Zerbitzuen hornidura: ingurunean eragina izango luketen zerbitzu-sareak instalatu edo birjartzeko jardueren deskribapena.
- Ingurumenerako, osasunerako eta ondasun materialetarako arriskutsuak diren jarduketak egiteko aukeren zehaztapena. Ildo horretan, arreta berezia jarriko zaie ingurune hidraulikoan eragiteko arriskua duten jarduketei, bai eta Salburua KBE/HBBEan eragin dezaketenei ere, horren kontserbazio-helburuak kontuan hartuta. Salburua KBE/HBBEaren gaineko eraginek zer irismen izango duten eta zenbaterainokoak izango diren baloratu eta hondar-inpaktuak zehaztu ahal izateko behar adina xehetasun emango da.
- Obretako isurketen zenbatespena (hondakin-urak): izaera eta aurreikusitako kantitateak.
- Obra-fasean sortutako hondakinen zenbatespena eta haien helmuga. Hondakinen prebentziorako, bereizketarako eta biltegitartzeko aurreikusitako neurriak, bai eta hondakinak berrerabiltzeko, balioztatzeko edo ezabatzeke aurreikusitakoak ere.

- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzatiak eraginez gero, horietan aurreikusitako esku-hartze mota zehaztuko da.
- Obra-faseko partikula-emisio atmosferikoak. Zehaztu beharko da zein jarduketatan eta fasetan gerta daitezkeen partikula-materialen emisio atmosferiko esanguratsuak.
- Obra-fasearen karakterizazio akustikoa. Zarata eta bibrazio maila adierazgarriak eragin ditzaketen ekintzak, proiektu-faseak edo makinak identifikatuko dira, dagokien azterketa akustikoa kontuan hartzeko.
- Obra-plana. Obra gauzatzeko epea. Jarduketari aurreikusten zaion iraunaldia. Eraikuntza-sistemaren deskribapena; hala badagokio, aurreikusitako faseak, prozesuak edo sekuentziak xehatuko dira.
- Obra-aldiko trafikoa, aurreikusten den trafikoaren zenbatespena eta aukeratu diren ibilbideak, obrek egungo trafikoan norainoko eragina izan dezaketen eta nolako eragozpenak eratortzen diren zehaztuta.
- Funtzionamendu-fasean zaratak igorriko dituzten foku nagusien identifikazioa eta kuantifikazioa, dagokion azterketa akustikoa kontuan hartzeko.
- Soberakin berriak biltegitatu beharra aurreikusten bada, kontuan hartu beharko da horretarako proiektuak otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak agindutakoaren arabera egin behar direla (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena), eta, beraz, dekretu horren 26. artikuluan zehazten diren ur- eta biodibertsitate-gaietan eskuduntza aitortzen zaien organoen txosten nahitaezko eta lotesleetatik eratorritako emaitza, baldintza eta neurriak ere bildu behar direla haietan.
- Proiektuaren fase guztietan sortuko diren hondakinak eta haien helmuga. Obrak egin bitartean eraikitze- eta eraispén-jardueren ondorioz sortutako hondakinak honako bi xedapen hauen arabera kudeatuko dira: 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa; eta 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa.
- Kotxetegiari dagokionez, honako hauek definituko dira: instalazioen edukiera, eraikinen tipologia, tranbia-zabaltzak, sarbideak, garbiketa-sistemak, tailerrak, xurgatze-sistemak, pintura-kabinak, etab. Hondakinak, hondakin-urak edo isuriak sor ditzaketen prozesuen deskribapena. Hondakinak jasotzeko, biltegitartzeko eta kudeatzeko sistema. Hondakin-uren eta emisioen tratamendua eta kudeaketa.

Kotxetegi berrian garatu beharreko jarduerari dagokionez, produktu kimikoen erabilerarekin, bateriak biltegitratzearekin, zarata sortzearekin, argiztapen-sistema eta -ordutegiekin eta abarrekin lotutako alderdiak zehaztuko dira.

Era berean, kotxetegiko jariatze-urak drainatzeko eta husteko sistemen eta, behar izanez gero, horien aurretiazko tratamenduaren deskribapen xehatua egingo da, eta, hori osatzeko, obra-fasean zein ustiapen-fasean akuiferoa kutsa dezaketen jariatze-uren balizko eraginaren analisisa egingo da.

- Obren eraginpeko gunetako paisaia-lehengoratzearen eta -integrazioaren xehetasuna.

- Tranbiaren funtzionamendu-erregimena.

Proiektua behar bezala deskribatzeko beharrezkoak diren xehetasun-planoak aurkeztuko dira, gutxienez honako hauek barne hartuta:

- Kokapen geografikoaren plano geoerreferentziaduna.
- Egin behar diren jarduketan oinplanoko planoak. Proposatutako jarduketek behar bezala zehaztuta eta bereizita egon behar dute.
- Proiektatutako jarduketan luzetarako eta zeharkako profilak eta sekzio tipoak.
- Jarduketan eraginpean dauden zerbitzuak eta haien berrezarpena.
- Drainatze-sarearen planoak (uren bilketa, isurketa-puntuak, etab.).
- Obrako instalazio lagungarrien eta haietarako sarbideen kokapen-planoak.
- Soberakindegia eta horri lotutako azpiegituren kokalekuaren planoak, halakorik badago.
- Paisaia-lehengoratzeko eta -integrazio proposamenen planoak.

2.2. Aztertutako aukeren azalpena eta hautatu den aukeraren justifikazioa

Ingurumen-inpaktuaren azterlanak barne hartu behar du ingurumenerako egokien diren aukera teknikoki bideragarrien azterketa, eta horien konparaziozko balorazioa egin behar du, zero aukera edo ez jardutekoa barne. Proposatutako irtenbidea justifikatu beharko da, eta jarduketan dimentsioari eta hedadurari ez ezik, aipamena egin beharko die dauden irtenbide tekniko guztiei ere.

Aukerarik onena hautatzeko, askotariko irizpideak jasotzen dituen azterketa global bat egingo da, alderdi ekonomikoak ez ezik, gizarte- eta ingurumen-arloak ere aintzat hartuta.

Ildo horretan, natura-ondarearen kontserbazioarekin bateragarritasun-maila handiena duten aukerak aztertu behar dira – bereziki, Salburua Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Eremuarekin (HBBE) eta Gasteizko azpisistema hidrikoarekin eta akuifero kuaternarioarekin lotuta–, eta haren elementuetan eragin txikiena duen aukera hautatu behar da.

Aukeren azterketan, kotxetegi berrirako proposatutako kokalekuaren ingurumen-egokitasunaren justifikazioa barne hartuko da, bai eta hura gauzatzeko aurreikusitako eraikuntza-teknikena ere, bereziki Salburuko urmaela babesteari dagokionez eta Salburua KBE/HBBEa kudeatzeko tresnetan xedatutakoa betetzeari dagokionez.

Atala bukatzeko, egindako hautua argudiatu beharko da, eta, horretarako, bermatu beharko da hautatutako aukera bideragarria dela bai teknikoki bai ingurumenari dagokionez, eta ahalegina egingo dela ahalik eta eraginik txikiena izan dezan ingurumenaren osagaietan.

2.3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko garrantzitsuenen deskribapena

Atal honetan, ingurunea deskribatuko da, osagai baliotsuenak eta proiektuko ekintzen eragina gehien jasan dezaketenak nabarmenduta. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko

21/2013 Legeak xedatzen duena betez, proiektua egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-baldintzak aztertuko dituen txosten bat ere jaso behar da, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera alderatzeko azterketa bat ere, aztertutako aukera bakoitzaren kasuan.

Ingurumen-inbentarioa atalez atal baloratuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia-esparru baten barnean (tokikoa, eskualdekoa edo bestelakoa).

Kasu guztietan, datuen iturri dokumentalak adierazi beharko dira, material bibliografikoak izan, norberak prestatuak edo bestelakoak.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren deskribapena laburra izango da. Saihestu egingo dira ingurumen-inpaktuaren azterketaren ikuspuntutik ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak, eta kontuan hartuko da proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eraginak ulertzeko behar dena.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, proiektuaren eraginpean dagoen eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak honako alderdi hauek hartuko ditu barne:

- Geologia eta geomorfologia, eta lurzorua:
 - Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologiko eta geomorfologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak.
 - Interes geologiko/geomorfologikoa duten leku, gune eta eremuen identifikazioa.
 - Material litologikoen iragazkortasuna. Akuiferoen kalteberatasuna. Kalteberatasun handiko guneen, karga-guneen, hustubideen eta abarren identifikazioa, halakorik badago, eta gune de horien eta proiektuaren arteko erlazioa.
 - Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak hartu dituzten lurzatiak zehaztuko dira. Proiektuaren ondoriozko jarduketak aipatutako lurzati horietako batekin bat badatoz, lurzati horren egoera administratiboa deskribatuko da, besteak beste, lurzoruaren kalitatearen adierazpena duen edo ez.
- Gainazaleko eta lurpeko hidrologia:
 - Proiektuaren eragin-eremuko sare hidrografikoa. Proiektuak eragindako ibilguen eta haien ertzen egoera. Eremuaren egoera zehaztuko da, uholde-arriskuari dagokionez.
 - Akuiferoen eta interes hidrogeologikoko guneen kutsadurarekiko kalteberatasuna. Proiektuaren eremuaren ezaugarri hidrogeologikoak.
 - Uren kalitatea. Proiektuak eragindako zatien egoera ekologikoaren zehaztapena (biologikoa, fisiko-kimikoa eta hidromorfologikoa).
 - Eremuan dauden ur-puntuak. Horien ezaugarrien deskribapena, erabilera adierazita, eta xehetasun-kartografian kokatuz.
- Eremuan dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena:

- Proiektuak eragindako landaretza-azalera eta eragindako zuhaitzen ezaugarriak zehaztuko dira (espeziea, tamaina, aleen heldutasuna, egoera fitosanitarioa eta abar). Flora exotiko inbaditzailea dagoen/ez dagoen zehaztuko da.
- Proiektuaren azterketa-eremuak uhalde-enararen (*Riparia riparia*) interes bereziko eremuarekin bat egiten du, tranbia-trazadurak Ehari erreka gainetik zeharkatzen duen gunean, kotxetegi bisoi europarrarenaren (*Mustela lutreola*) ondoan dago, eta bi espezieek Kudeaketa Plan bana dute. Espezie mehatxatu horientzat edo beste batzuentzat interesekoak diren kokalekuen (ugaltzeko, babesteko eta elikatzeko eremuak) presentzia finkatu edo baztertu behar da. Espezie bakoitzaren kudeaketa-planean ezarritakoa ere bete beharko da.
- Kotxetegi berria ezartzeko eremua Salburuko hezegunearen ondoan dago. Hezegune hori Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sarearen parte da, eta Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) ez ezik, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) ere bada, ekainaren 30eko 121/2015 Dekretuari jarraituz. Dekretu horren bidez, Salburua Hegaztientzako Kontserbazio Bereziko Eremu eta Babes Bereziko Eremu izendatzeaz gain, kontserbazio-neurriak ezarri ziren. Hain zuzen ere, eremua aipatutako «Salburua» ES2110014 KBEaren «Inguruko Babes Gunean» dago. Gune horretan, Habitatari buruzko Zuzentarauaren 6.3 artikuluko prebentzio-araubidea eta eremuari dagozkion kudeaketa-dokumentuetako babes-arauek daude indarrean. Gunea kontserbatzeko helburuak jasoko dira, eta egiaztatuko da proposatutako jarduketak bateragarriak direla gune hori kudeatzeko tresnetan xedatutakoarekin.
- Kalteak jasango dituzten landare- eta animalia-komunitateen azterketak honako alderdi hauek barne hartuko ditu:
 - Kontserbazio-maila. Egiturazko konplexutasuna. Landaretza naturala bertako espezieen ikuspuntutik eta haien estaldura-mailaren ikuspuntutik deskribatu beharko da.
 - Espezie katalogatuen eta babestuen presentzia.
 - Landare exotiko inbaditzaileen presentzia.
 - Beste alderdi sentikor batzuk.
- Paisaia:
 - Inguruko paisaia-baliabideei dagokienez, paisaiaren kalitatearen eta hauskortasunaren azterketa egingo da.
- Kultura-ondarea:
 - Jarduketa-eremuaren inguruan dauden ondare arkitektonikoko eta arkeologikoko elementuen deskribapena egingo da.
- Egoera akustikoa:
 - Obren ondorioak eta proiektuaren ustiapenarenak (zarata eta bibrazioak) pairatu ditzaketen eraikuntzen tipologia zehaztuko da (etxebizitzak, industriak, ikastetxeak). Halaber, eremuak gaur egun duen egoera akustikoa baloratuko da.

- Dokumentazio grafikoa:
 - Jarduketa-gunearen ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografiko geoerreferentziatuak jaso beharko dira, hala eskala orokorrean nola xehatuan, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko da.

2.4.- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioko elementuen eta eraginak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakzioaren ondorio izango dira. Eragina zenbatekoa izango den kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira bai eraikuntza-fasean bai ustiapen-fasean proiektuaren eraginpean egongo diren baliabideen kalitatea eta kantitatea.

Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta, horretarako, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu honetan, funtsean, egungo egoera eta etorkizunekoa konparatuko dira, zuzenketa-neurriak kontuan hartuta.

Ingurumen-inpaktuak baloratzeko erabilitako metodologiak eta zenbatespen-prozesuak zehaztuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartutako arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren arabera muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Zehazki, bestelakoak eragotzi gabe, proiektuaren eta eraginpeko ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumen-inpaktuaren azterketan bereziki baloratu beharko dira, gutxienez, lurzorua okupazioarekin eta natura-baliabideen, fauna mehatxatua, eta azaleko zein lurpeko uren gaineko eraginekin lotutako ingurumen-inpaktuak. Baliabide estetiko-kulturei dagokienez, baloratuko da azpiegiturak hiri-paisaia izango duen intrusioa eta ondare historiko-arkitektonikoan eta arkeologikoan izan dezakeen eragina.

Proiektuak eragindako eremuaren eta aurreikusitako jarduketaren irudikapen kartografikoa jasoko da, behar bezala geoerreferentziatua.

Ingurumen Inpaktuaren Azterketan, proiektuak Natura 2000 Sareko Salburua KBE/HBBEan izango dituen ondorio zuzenak eta zeharkakoak ebaluatzeko berariazko atal bat jasoko da, zeinetan lekuaren kontserbazio-helburuak aintzat hartuko baitira. Atal horretan, aurreikusitako inpaktuak, prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak eta horien jarraipena jasoko dira. Atal hori osatzeko, Europako Batzordeak argitaratutako gida tekniko erabilgarrietan oinarritzea gomendatzen da. Kontuan hartuko dira Salburuaren inguruko babes-gunean planteatzen ari diren beste proiektu batzuekin bat egitearen ondorioz sor daitezkeen metatze- eta sinergia-ondorioak.

Natura 2000 Sarearen osotasunari kalte egingo zaiola egiaztatzen bada, sustatzaileak agiri bidez justifikatu beharko du ez dagoela beste aukerarik eta badaudela lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiak, Natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikulua 5., 6. eta 7. apartatuetan aipatzen diren horietakoak, hain zuzen.

Era berean, kotxetegi berria Salburuko urmaeletik –hau da, Gasteizko akuifero kuaternarioari lotutako freatikokoaren azaleratetik– 50 metro eskasera proiektatzen denez, hondeaketak hasiera batean kalkulaturako metro bateko sakonerakoak baino handiagoak badira, edo horiekin maila freatikora irits daitekeela aurreikusten bada, Salburuko urmaeleen izan daitezkeen

eraginak baloratu beharko dira, bai urmaeleko ur-laminaren mailaren aldaketari dagozkionak, bai solido esekiak eta beste kutsatzaile batzuk iritsi ahal izateari dagozkionak. Hala badagokio, atal espezifiko bat gehituko da, eragindako lurpeko ur-masaren egoera edo potentziala definitzen duten kalitate-elementuen gainean epe luzera begira izango dituen ondorioak ebaluatzeko.

Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak eskatuta (Salburua KBE/HBBE eremua kudeatzen duen organoa), Ingurumen Inpaktuaren Azterketak honako inpaktu hauek karakterizatu beharko ditu:

- Kotxetegiaren instalazioek eta tranbiaren bideak Salburua KBE/HBBEan izango duten argi- eta soinu-inpaktua aztertu beharko da, sinergien azterlan bat barne hartuta.
- Kotxetegiaren lurzatiaren barruan ukituko diren zuhaitzak kuantifikatu eta intereseko flora posiblearen inbentarioa egin.
- Kotxetegiaren lurzatiko faunari buruzko azterlan bat jaso, narrastien eta kentzekoak diren zuhaitz urrietako abifauna ugaltzailearen presentzia ardatz hartuta.
- Ingurunean gauzatzen ari diren (Euneiz egoitza) eta aurreikusita dauden beste proiektu batzuekiko (Buesa Arenarainoko tranbia-linea berria, kasu) sinergien azterketa.

Gainera, baliteke proiektuak indusketa-soberakinak sortzea, beraz, ingurumenean izango dituzten ondorioak ebaluatu behar dira. Era berean, kontuan hartuko dira lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzatiaren eraginaren ondoriozko arriskuak, hala badagokio.

Baloratu egin beharko da proiektuak, orobat, klima-aldaketari dagokionez izan dezakeen efektua, eta zer eragin izango duen proiektuak giza osasunaren eta lasaitasun publikoko baldintzen gainean. Ildo horretan, hots-kutsadurak, bibrazioek eta hondakin, isuri zein emisioen kudeaketa egokiak eragin ditzaketen inpaktuak baloratuko dira, obra-fasea zein ustiapen-fasea kontuan hartuta.

Zaratarri dagokionez, obren eragin akustikoaren balorazioa jasoko da. Horretarako, kontuan hartu beharko dira Zaratarri buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean zein EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan jasotako obretako zaratarri buruzko xedapen espezifikoak. Aintzat hartu beharko dira obrako makineriaren potentzia akustikoa, zonakatze akustikoa eta gune bakoitzean kalitate akustikoari dagokionez ezarritako helburuak.

Obrek (igorle akustikoa) sei hilabete baino gehiago irautea aurreikusten bada, inpaktu akustikoari buruzko azterketa bat egin beharko da, zuzenketa-neurri egokiak definitzeko. Inpaktu akustikoari buruzko azterlanean aztertu beharko da zuzenketa-neurrien bitartez zer onura akustiko lortzea espero den, eremu akustiko eta eraikin sentikorretan zarata-maila murrizteari dagokionez.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak, halaber, funtzionamendu-faseko zarataren eta bibrazioen azterketa bat jasoko, tranbia-azpiegiturei aplikatu beharreko zarataren arloko xedapen espezifikoak kontuan hartuta.

Azterketa biak egiteko erreferentziazko metodologia dokumentu hauetan jasotakoa izango da: 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Zaratarri buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, inguruneke zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez, eta 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko Hots-kutsadurari buruzkoa.

Bi azterlanen emaitzak eremuko kutsadura akustikoaren mailak baloratzea ahalbidetu beharko du, eta afekzioak grafikoki irudikatzen dituzten mapak barne hartuko ditu.

2.5. Proiektuaren kalteberatasuna

Istripu larriak edo hondamendi handiak gertatzeko arriskua dela eta proiektuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio kaltegarrien deskribapena, azterketa eta, hala badagokio, kuantifikazioa egingo da, baita istripu edo hondamendi horiek gertatzeko arriskuari buruzkoak ere. Helburu hori lortzeko, proiektuari aplikatu beharreko bestelako arauei jarraituz egindako arrisku-ebaluazioetan lortutako informazio esanguratsu erabilgarria baliatu ahal izango da.

Horrelako ezbeharrek ingurumenean sortzen dituzten kalte nabarmenak prebenitzeko eta arintzeko aurreikusitako neurri guztiak bildu behar dira deskribapenean, baita halako larrialdietarako proposatzen diren prestakuntzari eta erantzunari buruzko xehetasunak ere.

Irizten bada atal hori ez zaiola aplikagarria proiektuari, justifikazio-txostena erantsi beharko da.

2.6. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien proposamena

Ingurumen-inpaktuaren azterketan, ingurunekeko elementu bakoitzean ingurumen-ondorio negatibo esanguratsuak murrizteko zer neurri aurreikusten diren adierazi beharko da. Espero diren inpaktuen ezaugarrien arabera proposatu eta dimentsionatuko dira neurri zuzentzaileak.

Inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko pentsatutako ekintza bakoitza xehetasunez identifikatu eta deskribatuko da, bai ekintzaren diseinu eta kokapenari dagokionez, baita kutsaduraren aurkako prozedurei, arazketari eta ingurumenaren babes generikoari dagokionez ere. Deskribapenak xehetasun-maila nahikoa izan beharko du hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatzeko, exekuzio-proiektuek izan ohi dituzten apartatuak barne hartuta: memoria, neurketen koadroa, obra-unitateen definizioa, aurreikusitako neurri bakoitzari dagokion aurrekontuko partida eta preskripzio teknikoaren agiria, bai eta hori guztia hobeto ulertzeko behar den kartografia ere. Neurriak obraren planean txertatuko dira, eta neurriak gauzatzeko egutegi koordinatu bat proposatuko da.

Zehazki, eta ezertan galarazi gabe aurreko apartatuetan eskatutako azterketen emaitzen ondorioz sartu beharko liratekeen beste neurri batzuk, prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurrien proiektuak neurri hauek hartu eta garatuko ditu, beste batzuen artean:

Natura-ondarea babesteko neurriak

- Salburua KBE/HBBEa eta lotutako fauna babesteko neurriak, gunea kudeatzen duen organoaren jarraibideen arabera. Kasu horretan, Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak eskatuta, Ingurumen Inpaktuaren Azterketak prebentzio-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurri hauek jaso beharko ditu:
 - Kotxetegiaren soinu- eta argi-inpaktua murrizteko, **soinu- eta argi-pantaila** bat sortu beharko da Hezeguneen ibilbidearekin bat egiten duen lurzatiaren gune osoan. Hainbat aukera aztertu beharko dira. Natura Ondarearen Zerbitzuak lubeta landareztatu bat (aukera gomendatua), landare-pantaila akustiko bat edo hesi akustiko bat proposatzen du, landaredi-banda sarri batekin batera.
 - Erabat ezabatu ahal izango ez diren aurreikusitako soinu- eta argi-inpaktuek eragindako hondar-inpaktuak konpentsatzeko neurri gisa, KBE/HBBEko eta haren

ondoko inguruneke hots- eta argi-kutsaduraren diagnostiko xehatu bat egin beharko da, bai eta inpaktu hori murrizteko ekintza-plan bat ere, hala badagokio.

- Salburua inguruko beste esku-hartze batzuekiko inpaktu sinergikoa konpentsatzeko, Arkautiko urmaeleko bi irlak egokitzea proposatzen da, betelaretako materialarekin –egokitzeak diren uharten alboko lohietatik hartua– handitze bat eta profilatu bat eginez, gutxi gorabehera 15 cm-ko sakoneran (dekapatu).
 - Betoñuko hezegunearen inguruko hirigintza-presioari aurre egiteko azterlan bat egitea. Azterlanean Betoñuko urmaela inguratzen duten Salburuko Bulebarrerako eta Hezeguneen ibilbiderako hirigintza-aukerak jasoko dira, eta, besteak beste, bideak, aparkalekuak eta oinezkoentzako gunak aldatzea edo berrantolatzea jasoko da.
 - Hezegunetik oso hurbil dagoen ingurune horretan bi hektarea baino gehiagoko espazioa galtzea konpentsatu egin beharko litzateke, KBE/HBBEan bertan dauden ibaien eta erreken aldameneko lurzati edo luzetarako tarteetako lurak eskuratuz edo akordioak eginez, hala nola lurraldea zaintzeko, horien bidez hezegunearen eta haren biotaren kontserbazio-egoera orokorra hobetzen laguntzeko.
 - Salburua auzoko euri-uren kolektorearen eta efluentearen diagnostikoa eta horiek hobetzeko proposamenak. Gaur egun, euri-urak Betoñuko urmaelaren iparraldean dagoen aintzira batera isurtzen dira, eta, ondoren, galeriatik, Dulantzi ibaira. Ur hori karakterizatzea, saneamendu biguneko neurriak planteatzea eta hezeguneetara birzirkulatzeko aukera aztertzea proposatzen da.
- Betoñuko urmaeleko uren kalitatea babesteko neurriak, urari eragitea saihesteko, bai ur-laminaren mailari dagokionez, bai kotxetegi berrian egin beharreko obretatik eta jardueratik eratorritako solido esekiak eta bestelako kutsatzaileak iristeari dagokionez.
 - Kotxetegi berrian garatzekoa den jardueran argi- eta soinu-mugak, Salburua KBE/HBBEa babesteko.
 - Hiri-landaredia babesteko neurriak. Oro har, zuhaitzen gaineko eragina minimizatu egin behar da. Zuhaitzak eta mantendu behar diren gainerako elementuak seinlatu eta babestu egin beharko dira, haien kontserbazioa bermatu ahal izateko.
 - Uhalde-enararentzako eta bisoi europararentzako neurri espezifikoak, haien kudeaketa-planen eta Arabako Foru Aldundiaren jarraibideen arabera.
 - Salburua KBE/HBBEarekin lotutako fauna-komunitateen epe luzerako jarraipena egiteko neurriak, proiektua haren babes-gunearen zati batean kokatzen delako.
 - Lurak mugitu diren eta landaretzarik gabe gelditu diren eremuetan landare-espezie inbaditzaileak ez sartzeko kontrol-neurriak.

Sistema hidrologikoa eta hidrogeologikoa babesteko neurriak

- Tranbiaren eta kotxetegi berriaren obra-fasean eta funtzionamendu-fasean sistema hidrologikoa eta hidrogeologikoa babesteko neurriak. Irizpide orokor gisa, eraikuntza-jarduketako osoak jabari publiko hidraulikoko zortasun-eremua zaindu beharko du, eta eraikuntza-prozesuan ibilguei, ur-bazterrei eta uren kalitateari inolako kalterik ez eragitea bermatu. Era berean, tranbiaren plataformaren eta kotxetegi berriaren gainazalaren drainatze-diseinua lehendik dauden euri-uren sistemei lotuko zaie,

ustiapen-fasean jabari publiko hidraulikora zuzenean isurtzea saihesteko. Kotxetegiaren eraikineko aldagelek eta bainugelek zein tranbiak garbitzeko guneak sortutako hondakin-urak saneamendu-sare orokorrera konektatuko dira.

- Betoñuko urmaelaren ondoan kotxetegi berria egiteko indusketak hasieran kalkulaturako metro bateko sakonerakoak baino handiagoak badira, edo horiekin maila freatikora irits daitekeela uste bada, Gasteizko akuifero kuaternarioa babesteko neurriak hartu behar diren baloratu beharko da.
- Pilaketa-guneak eta eremu osagarriak behar bezala kokatzeaz gain, makineria-parkeak eta instalazio osagarriak egokitzeko neurriak (iragazgaiztea, drainatze-sarea, etab.), ibai-sareari eta akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handiko guneei zuzenean edo jariatzearen bidez eragitea saihesteko.
- Obra-guneetan, eta batez ere indusketa-lanetako materialekin kargaturako kamioiek ibili behar dutela aurreikusten den irteeretan, ibilgailuak garbitzeko instalazioak ipini beharko dira dekantazio-putzuetara konektatuta. Azterlanak azaldu beharko ditu elementu horien ezaugarriak, kokapen zehatza eta tamainaren justifikazioa.

Hondakinak kudeatzeko neurriak

- Obra-fasean zehar hondakinak kudeatzeko proposamena. Bilketa-, biltegitratze- eta tratamendu-sistemen deskribapena.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzoru-guneetan lanak eginez gero, babes- eta kudeaketa-neurriak. Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsaturakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak xedaturakoaren arabera lurzoru kutsatuen alorrean aplikatzekoak diren betebeharrak betetzea.

Kultura-ondarea babesteko neurriak

- Mendibiarte Herrigunea (6. zk.) eta Mariturririko Aztarnategia (31. zk.) ustezko zona arkeologikoetan –Vitoria-Gasteizko (Araba) Balizko Arkeologia Guneen Izendapena egiten duen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez hala izendatuak–, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 65. artikuluan xedaturakoa aplikatu behar da.
- Tranbiaren elementuak kokatzeko orduan (seinaleztapena, katenaria-zutoinak, markesinak, etab.), ikusizko intrusioaren ikuspegitik, ondareko elementuen presentzia kontuan hartuko da.
- Ustezko zona arkeologikoekin bat egiten duten lanak arkeologo batek ikuskatuko ditu. Obra-fasean aztarna arkeologikoren bat agertzen bada, berehala geldiaraziko da obra, eta Foru Aldundiko Kultura Sailari edo Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraziko zaio, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 74. artikuluan adierazten den bezala.

Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak

- Lanek iraun bitartean zein tranbiaren funtzionamendu-aldian zarata eta bibrazioen emisioak minimizatzeko neurriak, hots-kutsadurari buruzko azterketetatik eratorritakoak. Horiek zer eraginkortasun izatea espero den ere adierazi beharko da.

Herritarrei kalte eta eragozpen gutxiago eragiteko neurriak

- Zerbitzu edo baliabide publikoen gaineko inpaktua minimizatu edo konpentsatzeko neurriak, bereziki aire zabaleko aisiarekin lotutakoei dagokienez (parkeak, atsedenlekuak, bidegorri-sarea eta abar).
- Tranbia-bidea eta horri atxikitako azpiegiturak hiri-ingurunean integratzeko neurriak.
- Kotxetegi berriaren funtzionamenduari aplikatu beharreko berariazko neurri zuzentzaileak.

Paisaia-integraziorako eta eragindako lekuak lehengoratzeko neurriak

- Obrak lehengoratzeko eta paisaian integratzeko neurri zuzentzaileak, azpiegitura paisaiara egokitzeko proiektu bat barne. Hala, obrek eta haien eremu osagarriak (materialak pilatzeko guneak, soberakindegia, behin-behineko eta behin betiko sarbideak, etab.) eragindako azaleren artean, landaredi-estalki egonkorra izan dezaketen guztiak landareztatuko dira.
- Salburua KBE/HBBEaren inguruko babes-gunearen okupazioari dagokionez, Natura 2000 Sarean sortutako hondar-inpaktuak arintzeko konpentsazio-neurriak, hala badagokio, eta espazioa kudeatzen duen organoaren jarraibideen arabera.
- Zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak ingurumena lehengoratzeko proiektu espezifiko batean bilduko dira. Proiektu hori proiektu orokorrarekin lotuko da maila guztietan (aurrekontua barne), eta honako alderdi hauek zehaztuko ditu:
 - o Gainazal edo gune bakoitzeko lehengoratze-prozesuetan erabili beharreko espezieak, landaketaren dentsitatea, aleen tamaina, ereintzen edo hidroereintzen konposizioa, neurketak eta proposatutako jarduketak gauzatzeko eta landatutako eremuen mantentze-lanak bermatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-partidak.
 - o Gunea landareztatze proposamena, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.
 - o Aurreikusitako mantentze-lanak: hutsarteak, ureztatzeak eta, hala badagokio, ongarriketak berritzea, besteak beste. Gomendatzen da mantentze-lan horiek obrak egin eta gutxienez 3 urtez luzatzea.

Landaketa-proiektuan, flora aloktonoaren inbasio-prozesuak saihesteko neurriak barne hartuko dira, kontuan hartuz lur-mugimenduek landare mota horien zabalkundea erraztu dezaketela.

Kartografia erantsiko da, proiektu-eskalakoa; bertan zehaztu eta irudikatuko dira landareztatuko diren eremuak, kasu bakoitzean aurreikusi den tratamendua adierazita (ereintzak, landaketak, etab.).

2.7. Ingurumena zaintzeko programa

Ingurumena zaintzeko programa bat eratuko da. Programa horren helburu nagusia izango da ingurumen-inpaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak zein bertan adierazitako jarraibideak eta zuzenketa-neurriak beteko direla bermatzeko sistema bat ezartzea.

Programaren helburuak zehaztuko dira eta, helburu bakoitzaren kasuan, jaso beharreko datuak, erabili beharreko metodologia, neurketa-puntuak (puntu horiek zehazki non dauden jakiteko planoko kokapena eta krokisa barne) eta neurketen maiztasuna ere adieraziko dira.

Kalitate-helburuak legediak edo oro har onartuta dauden azterketa teknikoek zehazten dituzten muga-balioen edo gida-balioen arabera izango dira. Hala ere, proiektuaren eraginpeko eremuaren berezitasunek eta ezaugarri zehatzek hala eskatzen badute, balio zorrotzagoak ezarri beharko dira beharrezkoak irizten zaien parametroetan.

Era berean, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eragin jarraipen egokia egin ahal izateko.

Proiektuari eta proiektuak ingurunean duen eraginari buruz jasotako datuen ondorioz beharrezkoak diren kontrolez gain, kontrol hauek izan beharko ditu programak:

- Obren okupazio-mugen kontrola
- Obrako jardunbide egokien kontrola, hauek saihesteko: hondakin-isurketak, olio-jarioen, zementu-esneen eta lur-mugimenduen ondorioz lurzorua edo ura kutsatzea, eta biztanleei zarataren, hautsaren eta abarren ondorioz eragozpenak sortzea.
- Lur-mugimenduen eta indusketa-materialen kudeaketaren kontrola.
- Hala badagokio, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen hondeaketaren kontrola.
- Landarediaren gaineko eraginaren kontrola.
- Intereseko landarediaren gaineko eraginaren kontrola.
- Ur-ibilguen eta uren kalitatearen gaineko eraginaren kontrola.
- Obra-faseetako zarataren eta bibrazioen kontrola. EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako prozedurak erabiliz diseinatu eta gauzatuko dira kontrol horiek.
- Obretan eta ustiapenean proposatutako jardueren eta Natura 2000 Sareko Salburua KBE/HBBE espazioa kudeatzeko tresnetan xedatutakoaren arteko bateragarritasunaren kontrola.
- Salburua KBE/HBBEari lotutako fauna-komunitateen kontrola eta epe luzearako jarraipena.
- Obretan eta ustiapen-fasean sortutako hondakinen kudeaketaren kontrola.
- Obren kontrol arkeologikoa
- Obren eraginpeko gune guztietan lehengoratzeko lanak gauzatzearen eta egindako lanen arrakastaren kontrola.
- Aurreikusitako prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien eraginkortasuna egiaztatzekeko beste kontrol batzuk.

Kontrol-puntuak kartografikoki islatu beharko dira.

Funtzionamendu-fasean, honako alderdi hauek kontrolatu beharko dira, besteak beste: jarduerak sortutako zarata eta bibrazioak, kotxetegiko hondakin-uren, hondakinen eta emisioen kudeaketa eta landareztatze-lanen emaitza.

2.8. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren laburpena

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren eta haren ondorioen laburpen-dokumentu bat idatzi beharko da, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak VI. eranskinean ezarritako ezaugarriekin. Dokumentuan labur-labur eta edonork ulertzeko moduan bildu beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak ekiditeko edo minimizatzeko proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea gomendatzen da, jendea informatzeko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean aurkitutako zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

3. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 77. artikuluan eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 39.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organuari bidaliko dizkio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoa, ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta jaso diren alegazio eta txostenen ingurumen-edukiari buruz sustatzaileak egin dituen oharren dokumentu bat, azaltzen duena nola hartu diren kontuan oharrok.

Dokumentazioa formatu digitalean eta xede horretarako egin diren jarraibideak betez aurkeztu behar da. Jarraibideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean daude eskuragarri (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/ingurumen-ebaluazioa/>), dagokien atalean [Arloak > Ingurumen Ebaluazioa > Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeako prozedura izapidetzea > Eskaerak aurkeztea].

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrenena. – Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentuak lau urteko epean izango du balioa, hura sustatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Dokumentuak balioa galduko du epe hori igarotakoan organo substantiboari ez bazaio ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkeztu ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasteko.

Hirugarrena. – Ebazpen honen edukia Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 25a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendaria

Elektronikoki izpta.: Aitor Aldasoro Iturbe
Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea

(otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren bidez)